



SALMENTARAKO BALDINTZA OROKORRAK

1) ESKAERAREN ONARPENA:

Bezeroak eskaera egitea eta gure Sozietateak hori baieztatzeak, hala nola bezeroak material guztia onartzeak, honako salmenta-baldintzei erreparorik gabe atxikitzea adierazten du.

Honako salmenta-baldintza orokorrak aldatzen dituen edozein hitzarmen, gure enpresa eta bezeroaren arteko idatzi baten bidez onetsi beharko da.

2) ESKAERA EZEZTATZEA:

a) Gure Sozietatearen baieztapen zehatzik gabe finko pasatako eskariak ezin dira ezeztatu. Ezeztapena onartu arren, fabrikazioa hasita dagoen material oro hornitu, egingo da eta guztia bezeroari fakturatuko zaio.

Oraindik fabrikazioa hasi gabe duten materialen eskari-ezeztapena onartzen den kasuetan, baina lehengai, tresna edo produktu berezien hornikuntza egina dagoenenan, kostu guztia bezeroaren kontura izango da, gure Sozietateak etorkizunean erabil dezakeenaren balioa kenduta.

b) Bezeroaren beharrak direla eta piezetako aldaketa teknikoek materialak aharkituta uzten dituzten kasuetan (edota itunduko edo onartutako eskari-kantitateak murrizketa nabarmenak dituenen) , aldaketa aurreko material guztiak bezeroak onartu beharko ditu, hornikuntza-kostuko balioaren arabera.

c) Eskari-maila edo hornitzeko onartutako kantitateak nabarmen jaisten diren kasuetan, aplikatu beharreko baldintza ekonomikoak aldatu ahal izango dira.

3) GURE PREZIOEN IRAUN-ALDIA:

a) Gure kotizazioak eta eskaintzak, eskaintzak onartutako aldi eta kantitateetan finko direla onartzen dira. Gai hauek aldatzeak bereziki onartutako prezioen salneurriekin fakturatuko dira.

b) Zergak egozteak: Bezeroari egoztekoa den zerga oro, gure fakturretan Bereizita-adieraziko da; beraz, kotizatutako prezioetatik kanpo geratuko da.

4) BETETZEKO EZINTASUNAK:

Gure erantzukizunetik kanpoko ezinbesteko kasuetan (gerra, iraultza, greba, hondamendi, lehengaiak, osagaiak edo bukatutako produktuak eskuratzeko ezintasun, garraio etenaldi, Aduana ixte edota eragina eduki dezakeen edozein neurri ofizial, eta abarreko kasuetan) ez dugu gure gain hartuko burutzeko arduna edo onartutako hornikuntzen atzerapenagatiko erantzunkizuna.



5) EMATE-EPEA:

Gure eskaintza-baldintzetan adieraziko emate-epeak aplikatuko dira.

6) TRESNEN KOSTUAN PARTE HARTZEA:

Tresneria egin eta prest ipintzea bezeroaren kontratazio eta fakturazioa, beti guztizko kostuarekiko partziala dela ulertzen da. Hori dela eta, bere erabilpenaren ondorioz sortutako asmakuntza eta hobekuntza teknikoak gure Sozietatearenak baino ez dira izango eta bezeroak beraiekiko ez du inongo eskubiderik izango.

7) BIDALTZEA ETA GARRAIOA:

Gure eskaintza-baldintzetan adierazitako baldintzak aplikatuko dira.

8) ERREKLAMAZIOAK ETA ITZULTZEAK:

Gure emate-datatik geroztik 90 eguneko epea igarotzen denean, akastuntzat jotzen den edo bere hornikuntzan hutsegiteren bat izan duen materialik ez da onartuko. Gure Sozietateak aurrez gure baimenik gabe ezer itzultzerik ez du onartuko. Gure produktuek kalitateko kontratu iraunkorra izan arren materiala akastuna izatea gertatzen bada edota bidaltzean akatsen bat gertatzen bada, gure Sozietateak akastun piezak ordezkatu egingo ditu edo hornikuntzaren zenbatekoa egokituko egingo du.

Gure Sozietatea ez da inoiz bezeroei edo 3.pertsoneri gertatutako zuzeneko edo zeharkako galera edo kalteen erantzule izango.

9) FAKTURAK KOBRANTZEA:

Ordaintzeko baldintzak gure eskaintza edo/eta fakturako baldintzetan azaltzen direnak izango dira.

Ordainketak egingo ez balira, ordainketa-etendurak edo porrota balego, gure Enpresak beste inolako izapiderik gabe, betetzeko dituen eskari guztiak edo batzuk eten edo ezeza ditzazke inongo kalte-ordainik ordaintzeko betebeharririk gabe.

10) ESKUMENA:

Bi aldeek Donostiako Epaitegi eta Auzitegi bakarraren Jurisdikzioaren menpe azaltzen dira, berainak izan daitezkeen Foru guztiei uko egiten dietelarik.